

{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Austeritate politiken higadura

Aurtengo aurrekontu eztabaida mugitua dator Europa osoan zehar. Luxemburgoko lehen ministro Pierre Gamenak, 2016ko aurrekontu proiektua aurkezterakoan, neurri bitxi bat iragarri zuen: bertako egoiliar guztiek aukera izango dute ogasunarekin kontuak egunean jartzeko ordainketa txiki baten truke. Hori amnistia fiskala da, non eta Dukerri Handian. Estatu txiki hori zerbaitegatik ezaguna bada, fortuna handien babesleku izan delako da. Herrialdeak multinazionalen zerga akordio sekretuak (*tax ruling*) sinatu izan dituela ere jakin dugu, batez ere egungo Europako Batzordeko presidente Jean Claude Juncker gobernu burua eta Ogasun ministroa zen garaian. Pentsatzekoa da, hortaz, horrelako neurri bat proposatzeara Juncker beraren eta bide batez Europar Batasunaren irudia garbitzera datorrela. Gainera, iruzurra egiteko bideok austeritate politikak eztabaiaezinak direnean ezagutu ditugu. Politika horiek herritar xumeen artean hondamendia eragiten ari dira. Beharbada, gobernuak horretaz konturatu eta higadura gutxitzeko asmoz eredugarri azaltzeko beharra su matu dute, edo, gutxienez, iruzurraren aurkako borrokan seriotasun pixka bat erakusteko beharra.

Austeritate politiken kostua beste norabide batean ere nabaritzen da, gastuaren norabidean, alegia. Estatu espainoleko Gobernuak aurrekontu eztabaida aurreratu du hauteskunde kanpainan tresna moduan erabiltzeko. Zerga erreforma, hobe esanda zerga jaitziera, ekainean egin zuen, boto-emaileek hauteskunde aurretik nabari zezaten eragina. Europar Batasunak, luze eztabaidatu eta gero, ontzat eman ditu Gobernuak aurkeztutako zenbakiak, baina, era berean, balorazio horrekin kontraesankorrak diren bi zeregin jarri dizkio: aurtengo aurrekontua zorrotz betetzea eta lehenbailehen hurrengo urteko aurreikuspen optimistak berrikustea. Horrelako zereginen itzulpena honakoa izan daiteke: ez dugu eskurik sartuko hauteskundeak pasa arte, baina gero dena moldatu beharko dugu.

Beste adibide bat Irlandan ikusi dugu. Bertako Gobernuak ere behar berdina sentitu du. Datorren urteko hauteskundeak begira, austeritatearekin zerikusirik ez duen aurrekontu proiektua aurkeztu du. Aurten 2.000 milioiko

murrizketa egin du eta datorren urterako 1.500 milioiko pizgarria proposatu du. Kontserbadore eta laboristen arteko koalizio gobernuak Finantza ministro Micheal Noonanek aurkeztu zituen neurriok: Gizarte Tasa Unibertsala (Gizarte Segurantzako ordainketak) beheratu, 2009tik izoztuta dauden pentsioak igo, orduko soldata minimoa 50 zentimo gehitu 9,15 eurora arte. Laguntza sozialak jasotzen dituztenen Gabonetako ordainketa ere igo egingo da. Espero zitekeen moduan, aurrekontuen erabilpen partidista horrek bazter guztietatik jaso ditu kritikak.

Kritikei beldurak bazterrak astindu ditu gure inguru hurbilean ere. Gasteizko Gobernuak udatik aritu da zerga bilketaren erorketa iragartzen. Gobernuaren bozeramaileak ez du aukera galdu bilketaren bilakaera ikusirik murrizketa gehiago egitea beharrezkoa izango zela gogortzeko behin baino gehiagotan. Hala ere, Finantza Kontseiluaren eguna iristean, bilketaren erorketari ga-

Austeritate politikak presio handia eragiten ari dira gobernuengan, baita oposizioko indarrengan ere; batzuk saiatzen dira duten ardura lausotzen, eta, besteak, aldiz, akordioak ixten politikok aldatu ahal izateko

rrantzia kendu eta murrizketei buruz aipamenik ez. Berandu bada ere, hauek ere, nonbait, konturatu dira datorren urtean hauteskundeak ditugula eta hobe dela egoera idilikoa marraztea.

Hauteskundeekin ez dira mugimendu politikoak bukatzen. Portugalen, adibidez, hauteskundeen ostean ezkerreko indarrak akordio batera iritsi dira gobernu osoa osatzeko. Errepublikaren presidenteari dagokio akordio horri bide eman ala ez erabakitzea. Edozein kasutan, lehenengo aldia da ezkerreko indarrek horrelako akordio bat lortzen dutela. Austeritate politikak presio handia eragiten ari dira gobernuengan, baita oposizioko indarrengan ere; batzuk saiatzen dira duten ardura lausotzen, eta, besteak, aldiz, akordioak ixten politikak aldatu ahal izateko. Mugitua dator Europa osoan politika ekonomikoaren eztabaida. •